

Astekaria

BARREN elgoi



astarku

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46

**Argazki errebelatua
ordu 1ean
Erreportaiak
Ezkontzak
Estudio argazkiak
Jaunartzeak
Karnetak
Argazki materiala**

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
Bosnia eta gero, zer?
- 6 ERREPORTAIA**
... Olez egitera gatoz
- 8 ASTE HONETAN**
San Blas opilik egiten al dituzu?
- 16 BERBETAN**
Gustabo Barrenetxea:
Sevillan tronpa jotzen duen elgoibartarra
- 17 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Aita Agirre 1863-1941
- 18 KIROLA**
Elkarrizketa: Ekaitz Iñasi
Atletismo eskolakoak bikain ari dira
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**
GARE-EILT: Irratzaletuen lagun taldea
- 21 KULTURA**
Txotxongilo erakusketa Kultur Etxean

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak....461111
Txanda hartzeko ...743354
Alkoholiko Anonimoak.....740385
D.Y.A (anbulantzia)464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.....756264
Drogomenpekotasun Z.....741008
Odol Emaileen elkartea.....743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar)112131
Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.742158
Mendaroko Udala756100.
Ongizate zerbitzua.....743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
IMI741196
Kontsumo Bulegoa743088
Liburutegia.....743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Polikiroldegia741361
Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 31 00
Pilar Ikastetxea74 13 31

farmaziak

5, larunbata: Ormazabal
6, igandea: Ormazabal
7, astelehena: Etxeberria
8, asteartea: Etxeberria
9, asteazkena: Etxeberria
10, osteguna: Etxeberria
11, ostirala: Etxeberria

okindegia

6, igandea:
ZABALETA



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldeg

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteberu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxebarria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Bosnia eta gero, zer?

Ezin dut onartu Slovodan Milosevic, Serbiako presidentea sinistarazi nahi didana: kroaziar guztiak direla faxistak. Jakina, Milosevicek ahanzarazi egin nahi dit, Josef Broz Tito Jugoslavia sozialisten sortzailea, kroaziarra zela. Eta Hitler naziaren genozidioa eteten lagundu zuela.

Serbiarrek XIX. mendea ezkerreko puztu nahi izan dute euren izateko arrazoia. Besteena ukatu. Franjo Tudjman Kroaziako presidentea ahaztu egin du hau. Serbiarekin Bosnia Herzegovina erdibanatzeko ustea, ustel bihurtu dakioke serbiarrek bultzatuta, bere gudagizonen errepublikako herena jan diote Kroaziari.

Gizalegegabeko haundinahikoak beti izan dira. Milosevic, Karadzic, Tudjman, Boban, Arkan, Seselij, Mladic dira adibide gaurko European.

Jainkoak egin eta haizeak pilatu! Yirinoski ultraeskuindar errusiarrak laguntza eskaini die oraintsu serbiako gerra gizoni.

Bitartean Europako Elkartea inozo-inozo, laguntza humanitarioa ematen. Gabonetan, jostailuz betetako zorrotxoak jaurti zituzten negazkin alemaniarrek Mostar Herzegovinako hiriburu gainean. Guda arauetatik urrun kroaziarrek jarritako lurrazpiko lehergailuak zapalduta hil ziren Mostargo haurrak jostailua jasotzean. Bosnia Herzegovina, Estatu subiranoa Nazio Batuen begietara, hiltzen uzten ari dira egungo agintari demokratikoak. Ez al da hau estatu-demokrazia beraren heriotza eta faxismoaren ataurra? Horra hor mamua.

Ana Aizpiri

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Zergatik ematen da igandetako haurren meza euskaraz eta erdaraz guztiek euskara jakinda? Bi esalditan erantzun ezin denez, datorren asteko "Eskutitzak" atalean izango dugu Parrokoaren erantzuna.



KEXAK

• Noiz arte jasan beharko dugu Kiroldegiko zikinkeria? Ikastolaren azken jaialdian gabardina barandan pegatuta geratu zitzaidan. Aski da! Garbitasun piska bat mesedez.



TXALOAK

• Emakume batek deitu digu Leku-Eder-eko parkea benetan polita lagatzen ari direlako. Modernoa eta orijinala iruditzen omen zaio.

ESKUTITZAK

Koldo Lizarralderen liburua dela eta...

Zuzendari jauna:

Lehenik eta behin Zorionak atera berri duzuen "Galderak, kexak eta txaloak" atal berriarengatik.

Halere badut nik ere kexa txiki bat: 49. aleko galderari ("Koldo Lizarralderen liburua zergatik ez da euskaraz (ere) argitaratu?") egileak erantzun zion, honek nire harridura piztuz.

Liburu horren argitaratzailea edota diruz lagundu duena Udala bada, goiko galderari erantzutea berari tokatzen zaiola iruditzen zait. Argitarapenetan erabiliko den hizkuntza ez du normalean idazleak erabakitzen, argitaratzaileak edota



laguntzaileak baizik. Beraz, Udalaren erantzunaren zai gelditzen naiz. Egileari dagokionean berriz, badakigu honek ondoen menperatzen duen hizkuntza erabiliko duela.

Bukatu aurretik, BARREneko zuzendariari galderen atalean agertzen diren erantzunak, galdera egin duenaren jakinmina asetzeko bestekoak izatea eskatuko nioke. Horretan saiatzea behintzat, hori baita atal horren funtzioa.

Besterik gabe, beste bat arte eta segi gogor lanean.

A.A.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" Edari Banatzailea



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



AZKUE

Aste honetako erretratua **Ignacio Arizmendiarrrieta Arrese**k laga digu. Berak esan digunez 1964. urtean Santa Ageda egunean aterako erretratua omen da. "Orain hil berria den Santi gure lagunari" egin nahi izan dion azken omenaldia da erretratu hau. **Santi Kortaberriaren** omenez hitz hauek idatzi ditu Ignaciok:

"Joan zaigu mundu honetatik gure lagun hau, joan diren urteetan hainbeste familiari eraman zenion bihotzez eskainitako laguntza, hainbeste negar malko

legortu dituzu Santa Agedaren izenean. Zuk, Santi, bazendun horrelako maitasun handi bat gure lagun urko diren gaixo, behartsu eta umezurtzekin.

Gure Jainkoa dago gurekin, baita ere gure ohitura ederrarekin. Goratu daigun, bada, Santa Ageda. Honek ongietorria emanaz hartuko zaitu, Santi, goiko zero ederrean, gure Jaungoikoaren onduan.

Jaungoikoak lagunduta aurten ere irtengo degu Santa Ageda koruak, zuk erakutsitako bideari jarraituz".

Ignacio Arizmendiarrrieta Arrese.

IBAI Gimnasioa



Ez zaitetz ekaina iristeko zain egon!! Hartu txandala eta hasi gorputza lantzen.

- GIMNASIA • AEROBIC
- JUDO • MUSKULAZIOA
- TAEKWONDOA
- HAURDUNENTZAKO GIMNASIA

...Olez egitera gatoz

"Santa Ageda bezpera degu, olez egitera gatoz..." Kopla zahar hauek berriro entzungo ditugu astebukaera honetan tradizio zahar bezain herriko baten adierazle. Aurten, inoiz ez bezala, bezperan eta Santa Ageda egunean talde bana izango ditugu kantari. Bezpera eguneko taldea, herriko baserri auzo guztietan zehar ibiliko da eta larunbat goizean, Santa Ageda koruak herriko kaleak zeharkatuko ditu.



■ ■ "Etxegiña" eta Santi Kortaberria 1980an lehenengoari egindako omenaldian.

AZKUE

Herriko zaharrenek ere ez dakite noiztik egiten den Santa Agedako eskea. Tradizio zaharra da benetan. Urteetan zehar zertxobait aldatuz joan bada ere, funtsean ia denak jarraitzen du berdin. Txapela eta atorra jantzita, kriseilua eskuan eta makilari lurraren kontra kolpea emanez, bularrak moztu zizkieten santuaren omenez, hainbat kopla kantatzen dituzte. Duela ez urte asko, bezpera izaten zen kanturako eguna. Arratsaldeko bostak aldera, lantegian baimena eskatu eta kalez kale iluntzeko bederatzia arte jarduten zuten koplatan. Lana zela eta, sapatu goizera aldatu zen.

Tradizio zaharra berreskuratuz

Lehenago, bazuten auzoetako baserritarrek kantura ateratzeko ohitura. Bailara bakoitzeko auzokideak, bailara horretako baserri guztietan zehar ibiltzen ziren oinez, eskean eta gaupasa eginez. Tradizioak dio, lantegitik bederatzia aldera irtenda, goizaldeko 7,30ak arte, gau guztia ematen zutela baserriz baserri. Herriko bailara bakoitzean gauza bera egiten omen zen. Askotan batere lorik egin gabe berriro lanera joaten ziren.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak usadio zaharrak berreskuratu nahian eta kaleko eskea urte askotan egin izan dutenen oniritzia jaso ondoren, Santa Ageda eskea

antolatu du, baserritarrek egiten zuten modura, bezpera egunean. Eskea egun osoan zehar egingo dute. Plaza handian hasita goizeko 8,30etan, leku berean bukatuko dute iluna egunaz jabetzen denean. Baserriz baserri, goizeko hamaikak aldera San Migelen hamarretakoa egingo dute, ordubiak aldera San Pedron bazkalduko dute, zazpiak aldera Sallobente bailara bisitatuko dute eta zortziak aldera bukatuko da plaza handian bezperako eskea. Bailara batetik besterako joan etorriak autobusez egingo dituzte. Koplariak German Meabebasterretxea eta Ziarda izango dira eta trikitilariak Zabaleta eta Iker.

Larunbat goizean kantura irtetea, ohitura bihurtu da

Koplak graziarekin botaz gero, efektua emankorra izan ohi da.

gaur egun. Plaza handitik irteten dira goizeko 9etan eta legeak dion bezala, lehen koplak parrokoari abesten diote. Goiza kalez kale ematen dute, Sigma, Santa Klara eta San Pedro auzoak pasa ondoren, kaletarrei koplak kantatzeko. Koplak graziarekin botaz gero, efektua emankorra izan ohi da. Harategiaren aurrean, urdai eta txorizo ederrak begiz jo ondoren, harakinaren borondate onari erregutzen zaio, batean eta bestean bildutakoarekin bazkari ederra egiteko ondoren.

Gaur egun koplak ez dira momentukoak, bapatekoak, izaten. Aldez aurretik Pedro Urainek idatzi egiten ditu eta entsaiatu ondoren kalean kantatzen dira. Gai-nontzekoek koplariak esandakoari erantzuten diote, beste bertso batzuk kantatuz. Eskea, Errosario kalean Amabirjinari Salbea abestu ondoren bukatzen da.

Krisiaz askotan hitz egiten bada ere, elgoibartarrak eskuzabalak diren dudarik ez dago: Iazko eskean 400.000 pezeta jaso ziren. Diru hau, Caritas elkarteari ematen zaio. Garai batean, ordea, beharrean zeudenen artean banatzen zuten dirua, askotan gaisorik zegoen norbaitentzat izaten zelarik. Baina haserreak eta horrelakoak hasi ziren sortzen eta harrez geroztik Caritas arduratzen da diruaren administrazioaz.

Santi Kortaberria gogoratuz

Duela gutxi, hilabete eskas, hil den Santi Kortaberria, gizon enblematikoa izan da Santa Agedako koruan. Bere bizitzako 50 urte luze eman zituen Santa Agedaren tradizioaren alde, eta aurten ere, izango du txoko bat koplakideen oroitzapenen artean. Iaz, koruaren zuzendari eta arduradun gisa 50 urte egin zituela eta,

Elgoibartarrak eskuzabalak garen dudarik ez dago: Iazko eskean 400.000 pezeta jaso ziren.

koruko kideen aldetik omenaldi beroa jaso zuen. 13 urte lehenago, 1980. urtean Santa Ageda koruko zutabe eta koplari berritzaile izan zen Etxegiñak bere kantu-lagunen omenaldia jaso zuen. Aurten, Santa Ageda osatzen dutenen artean presente dagoela adierazteko, oroigarri bat emango diote Santiren alargunari plaza handian.

Errelebua

Orain arte egindako lanak izango du jarraipenik. Ramon Uriguen, Etxegiñaren semea, izango da koruaren zuzendari eta arduradun aurrerantzean. Aurten berak hartu du antolakuntzaren kargua eta zenbait berrikuntza txiki ere egin ditu. Soinua eta panderoaren hotsa eta kantari arituko diren 70 lagunak isiltzen diren uneetan ikaste-txeetako haurrek jardungo dute soinua eta panderoa jotzen, giroa alaitzeko.

Pedro Urainek aurten kantatuko dituen lehen bi koplak:

“Berriro dago eldu bearra gure gogozko lanari, aldegun arte eutsi deiogun lengo ohitura onari. Santa Ageda eguna data agindu digute guri, eskatzen degu zabaldu zazu zure borondate hori.”

“Gure herrian langabeziak fabrika asko itxita, kalterik inork ez du izango aurrez prestatzen hasita. Gure biotzak lertu beardu hainbat nahigabe ikusita, Santa Agedak bidali gaitu herriko etxe guztita.”



■ ■ Lehen koplak parrokoari eta, azkena, Errosario kaleko Amabirjinari.

XABIER
 ILEAPAINDEGIA
*Eskatu
 eguna eta ordua*
 San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

rambarri
ASEGURUAK
 San Bartolome 15
 Tel. 74 3037

BATZOKIA
**JATETXEA
 ETA
 TABERNA**
 P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

Fotero
**OKINDEGIA
 OPILDEGIA**
 San Frantzisko, 4
 Tel. 74 07 35

ASTE HONETAN

San Blas eguneko ohituraren inguruan zenbait kontu

Betidanik ezagutu dut nire etxean San Blas opilak egiteko ohitura. Bezperan egiten genituen opilak eta San Blas egunean goizeko meza entzuzterera joaten ginen gure amarekin pardelak bedeinkatzera. Bertara, soka, San Blas opilak, gatza, azukrea eta laranja eramaten genituen. Apaiza gure janariak bedeinkatzen hasten zenean pardelak ireki eta goratu egiten genituen ondo bedeinkatu zitezten.

Meza ondoren bizkor joaten ginen etxera San Blas opilak gosaltzera eta eskolara ere, opil txiki bana eramaten genuen atsedendian jateko. Bazkaltzeko orduan, amak gatz bedeinkatua botatzen zion lapikokoari eta ondoren laranja eta San Blas opilak jaten genituen. Kontu handiz ibiltzen ginen bedeinkatutako janarien apurkak lurrera ez erortzeko, eta ondoren apurkak eta laranja azalak sutara botatzen genituen.

Bazkaldu eta gero bedeinkatutako soka jartzen genuen lepoan

zehar eta 9 egunez edukitzen genuen egunero otoitz berezi bat egiten genuelarik. Bederatzigarren egunean soka sutara botatzen zen. Hau, urte guztian zehar eztarriko minik ez edukitzeko egiten zen.

Gure etxean oraindik ere mantentzen dira ohitura hauek, aldaketa batzuk egon diren arren. Oraindik, esaterako, gaueko mezan bedeinkatzen ditugu janariak eta, apurkak, laranja azalak eta sokak sutan erretzea ezinezkoa zaigu, gaurko etxeetan surik ez dagoelako.



REGINA ARRIETA

ORAIKO
 SAN FRANZISKO 25
 ELGOIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
 MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
 SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
 GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
 San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

PINTURAK
 ● Fatxadak
 ● Komunitateak
 ● Mota guztietako lanak
 San Roke 30 behea Tel. 74 36 52

Egiten al duzue San Blas opilik etxean?



Maribel Arriola

59 urte, etxeoandrea

Etxian ez gera gozozaliak baina urtero erosten ditut eta bedeinkatzera eruan. Lepuan ere korde-la jazten dogu. Tradizio politxa da.



Maria Rosario Bragado

35 urte, etxeoandrea

Lehen amak egiten zuen baina nik erosi egiten dut. Alaba Pilarrean dago eta San Blasak eramaten ditu han bedeinkatzeko.



Tiburtzio Aranburu

67 urte, jubilatua

Batzutan etxian egiten ditxugu eta bestetan erosi. Bedeinkatzera ere beti eramaten dogu, kandelak ere bai. Amak ezin badau, albokuari edo esaten diogu.



Belen Maidagan

43 urte, etxeoandrea

Bizi guztian ospatu da gure etxian, baina sekula ez dogu guk egin, beti erositxakua. Bedeinkatzera urtero eramaten dogu, San Blasa eta kordela.



Mila Osoro

38 urte, etxeoandrea

Normalian astirik edukitzen ez dotenez ez dot eitxen, baina erosi bai edo bestela, erregalatu eitxen digute, izebak eitxen ditxu eta gero guri eman.



Juan Manuel Rodriguez

45 urte, espezialista

Urtero jarraitzen dugu ohitura hori etxean. Emazteak egiten ditu San Blasak, bedeinkatzera eraman eta gero danon artian jaten dugu.

 **OIERKI IGONGAILUAK**
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

KEMEN  Belardenda
**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

 **Salvador Celaya**
ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
Errosario 22. Tel: 74 04 94

 **Arrillaga, s.l.**
INPRIMATEGIA
DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, CARPETAK ETA
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET
Trenbide, 13 behea.ELGOIBAR. ☎ 74 01 87 Fax: 74 27 40

■ Termalismo programa 3. adinekoentzat

Udaleko Gizarte Ongizate sailak hirugarren adinekoentzako termalismo programa antolatu du. Helburua bainuetzeko tratamendua pentsionistei merkeago eskaintzea da. Tratamendua jasotzeko aurkeztutako pertsonen balorazioa egingo da, bakoitzaren beharra, egoera ekonomikoa eta adina kontutan hartuko direlarik. Tratamendua Seguritate sozialean daudenek har dezakete, eta, medikuak aginduta izan beharko da. Traumatismoak, erreuma, artritis, digestio aparatuko arazoak, txixa egiteko eta arnasa hartzeko arazoak... sendatzeko tratamenduak izango dira. Txandak 15 egunekoak dira eta iraila eta abendua bitarteko txandetarako izena emateko epea maiatzaren 31an bukatuko da. Informazioa jasotzeko 74 10 08ra deitu.

■ Udaltzaingoaren oharra

Otsailean herriko aparkaleku, oinezkoen pasabide eta abar margotzeko lanei ekin zaio eta hori dela eta, udaltzaingoak gidarien laguntza eskatu nahi du. Era berean, Anbulategitik Maalarako bidea itxita dago, eta Maalatik Anbulategirako norabidean bakarrik zirkula daiteke.

■ Ihauterietan ez da zinerik egongo

Ongarri zine klubak zine emanaldia eten egingo dela jakinarazi nahi du datorren astebukeraren ihauterietan baitira. Zine emanaldia otsailaren 18tik 20rako astebukaeran egongo da berriro eta Roberto Rodriguez zinegilearen "El mariachi" filmea emango da. Emanaldiak ohizko ordutegian izango dira.

Begirale ikastaroa martxan



Urtarrilean eman zitzaion hasiera Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolaturiko begirale Ikastaroari. Ikastaroan parte hartzeko hogeita hamar gaztek eman zuten izena eta maiatza arte umekin lana nola egin behar den ikasten

egongo dira.

Ikastaroa bukatzen denerako, OHoko haurrentzako hiru urteko aisialdi plangintza prestatuko dute Elgoibarko Izarrakoek eta plangintzaren helburu nagusia haurren euskarera erabilera suspertzea izango da.

600 haur Ikastolako jaialdian



Ikastolak urtero antolatzen duen jaialdiko une bat da honoko hau. Joan den urtarrilaren 28an burutu zuten jaialdia Kiroldegian eta bertan 600 baino haur gehiagok hartu zuten parte. Jaialdian 2 eta 3 urtekoak, batera aritu ziren eta adin horretatik aurrera maila bakoitzak berè ikuskizuna burutu zuen. "Euskaraz bizi" kanpainaren barruan, euskara promozionatu nahi izan du Ikastolak eta,

jaialdian horretarako beta izan zuten. Bukatzeko, ikasle, guraso eta Ikastolako zuzendariak kitarra joaz eta Regina irakaslearen zuzendaritzapean, aspaldiko garaiak gogorarazi zituzten "Aitorren hizkuntz zaharra", "Udaberrian" eta horrelakoak kantatuz. Ikastolak eskerrak luzatu nahi dizkie jaialdian lagundu zutelako, Olaizaga kiroldegiko arduradunei eta Udaleko brigadako kideei.

Lerun izango da enpresa berrien kokagune

Lerungo industria zonalderako plana pasa den ostiralean egindako plenuan onartu zen, EA, EAJ eta PSEren aldeko botuekin eta HBren kontrako botuekin. Plan honen arabera, Deba ibaiaren ildo desbideratu eta motzagoa geratuko da, 634 errepide nazionalaren aldamentan bi industria zona geldituko direlarik. Plenuan aparkalekuei dagokion espazioa murriztu zuten.

Plan hau, Morterika eta Lerun Txikiko proiektuaren planteamendu eta gestioarekin bat etorri beharko da. HB alderdia ibaiaren mozketaren aurka azaldu zen eta aurreko plana onartu gabe zegoela gogorarazi zien plenukideei. Jose Inazio Elkoro-Iribe alkateak planteamendu hori "erridikulua" zela adierazi zion HBko zinegotzi den Javi Agirreri eta "herriko indus-

tria non kokatu" behar den galde-tu zion. HBko Javi Agirrek "Sigma eta Olasoko lur industri- lak hor daudela" gogorarazi zion alkateari.

Planaz gain, beste zenbait puntu onartu zituen plenuak: bate-tik, udal brigadarako hiru langile kontratatuko dira eta igeltseru postu bat sortuko da. HBk postu hauen lehiaketarako oinarri ba-tzuekiko ezadostasuna agertu zuen eta kultura orokorrari buruz-ko azterketaren puntuazioa 10etik 5era jeisteko egin zuen proposa- mena onartu egin zuten gainon- tzeko talde politikoek. Bestetik, Altzolako zenbait etxebizitzatara- ko salmenta prezioa 2 eta 3 milioi bitartean ezarri zen. Azkenik, barne promozio lanpostuei buruzko puntua onartu zuen ple- noak aho batez.



Lanbide Heziketako ikasle, langile eta irakasleek Bosco deunaren jaia ospatu zuten pasa den ostiralean. Goizean goizetik hasita, eguna ondo baino hobeto igarotzeko aukera izan zuten. Goizeko joku eta lehiaketen ostean, bertsoak entzun ahal izan zituzten eskolako aretoan. Argazkian, Izaskun Elizburu, saioan aurkezle lanak egin zituena, Jokin Sorozabal eta Jon Maia bertsolariei gaia jartzten.

■ Euskal Herriko ihauteriak ezagutzen

Ihauteriak gainean ditugu eta jai hau Euskal Herrian nola ospatzen den hobeto ezagutzeko, Haritz Dantzari taldeak eta Elgoibarko Udalak zenbait ekintza antolatu dituzte. Hilaren 9an, asteazkena, arratsaldeko 7,30etan, Kultur Etxean Antxon Agirre Sorondok hitzaldi bat emango du gaiaren inguruan. Hurrengo egunean, hilak 10, osteguna, Koldo Lizarralde elgoibartarrak gai berari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko du.

■ Bandaren Kontzertua

Igandean, hilak 6, Elgoibarko Udala Musika Bandak Ikastolako aretoan kontzertu bat emango du eguerdiko 12,30etan, honoko obra hauek joko dituztelarik: "El Graff Zeppelin" (Teike), "Pique Dame" (F.V. Suppé), "The syncopated clock" (Anderson), "Katiuska" (P. Sorozabal) eta "The best of Mancini" (H. Mancini). Zuzendaria Jose Antonio Osoro izango da.

Kontzertuaren erdi aldera minutu bateko isilunea gordeko da hil berri diren Santi Kortaberria eta Benito Saezen oroimenez. Lehengoa bandako kide diren Jose Mari Kortabarriaren aita zen eta bigarrena Javier eta Juan Manuel Saezen aita.

■ Gurasoei zuzendutako sexu heziketa ikastaroa

Elgoibarko Batxilergo Institutuak heziketa ertainean seme-alabak dituztenen gurasoentzat, sexu heziketari buruzko ikastaroa antolatu du. UPV-EHUko soziologia ataleko irakasleak izango dira hizlariak lau saiotan banatuta: lehenengo biak otsailaren 16an eta 23an izango dira eta hurrengoak, martxoaren 2an eta 9an. Ikastaroan Kultur Etxean burutuko da arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara. Izena emateko epea hil honen 9an, asteazkena, bukatzen da.

Gustabo Barrenetxea:

Sevillan tronpa jotzen duen elgoibartarra

Sevillako Orkestan lau euskaldun daude. Horietako bat elgoibartarra dugu, Gustabo Barrenetxea. 22 urte dituen gazte honek tronpa jotzen du. Bere lehen urratsak Txomin Mujikarekin eman zituen, eta gero, Elgoibarko Inazio Bereziartua

kontserbatorioan. Geroago, Donostiako Orkestan, Iruineakoan eta baita Euskadiko Orkestra Sinfonikoan ere aritu izan da. Gainera, munduko tronpa jole onenekin ikasteko suertea izan du, besteak beste, Dale Clevenger-ekin, Chicagon.

- Tronpa kasualitatez ezagutu zenuen, ez?

- Bai. 11 urte nituenean Ikastolan "Danubio Urdina" jarri ziguten behin. Irakasleak esan zigunez, tronparena omen zen gehien nabarmentzen zen soinua. Gustatu egin zitzaidan eta tronpa ikasi nahi nuela erabaki nuen.

- Elgoibarko Kontserbatoriotik Donostiakora pasa zinen, baina...

- UBI amaitzean beldurra ematen zidan musika ikastera soilik mugatzeak, beraz, badaezbada, injenieritza ikasketak hasi nituen. Halere, Donostian neukan irakasleak, beste ikasleek baino hobeto jotzen nuela esan zidan eta, berak animaturik, musika ikasketei ekin nien betebetean, injenieritza utziz.

- Zer behar da ona izateko?

- Maixu on bat edukitzea da garrantzitsuena, zure erruak zeintzun diren esango dizuna. Horren arabera gero norberak etxean asko landu behar du. Gainera, instrumentua jotzeaz gain, musika entzun behar da, musikaren historia irakurri eta ikasi, etengabe.

- Musikoak al zara lanbi-



"Itsas-karakola bat aurkitu eta putz egin zuten urik ote zuen ikusteko, baina soinua bat ateratu zen. Halaxe sortu zen tronpa".

dez?

- Ez, tronpa jolea. Musikoak instrumentu bat jotzeaz gain, konposizioak egiten jakin behar du, orkestra zuzentzen... Begira, eskultoreak egiten duen obra hor gelditzen da nahi duenak ikus dezan. Musika ezberdina da. Beethoven-ek, adibidez, hainbat lan utzi zituen idatziak eta jendeak horiek ezagutu, entzun eta gozatu ditzan interprete bat egon behar da. Ni naiz interprete hori eta nire

lana autore handien musika bikainak ahalik eta hobekien isladatzea da.

- Kontaiguzu nola sortu zen Sevillakoa.

- Oposaketak ateratu ziren, Sevillako Orkestan tronpa jole baten beharra zegoela eta. Kurrikulum-a bidali nuen, azterketa egin eta, sorpresa handiz, aukeratu izan nintzen. Orain, froga bezala, urte t'erdiko kontratua daukat.

- Zein orkestatan jo nahi zenuke?

- Munduko onenetan:

Chicago-koan, Berlin, Amsterdan-ekoan... Baina ezinezkoa da, norberak argi izan behar du bere mugak non dauden. Nire nahia, mementuz, ikasitako guztia praktikan jarri eta esperientzia jasotzea da, horretarako Afrikara joan behar badut ere.

- Hobyrik ere baduzu, xakea.

- Bai, sei urte nituela hasi nintzen, aitarekin. Poliki-poliki, xakean ondo jokatzeke garrantzitsuena oroimena, praktika eta intuizioa zirela ikasi nuen. Karpov eta Kasparov-en aurka ere jokatu izan dut, baina aspaldian baztertu xamarra neukan. Duela gutxi, Sevillako taberna batean xakean ari nintzela, ikusle batek bere aurka jokatzeke eskatu zidan. Juxtu-justu galdu nuen. Ikusle hura, nik jakin gabe, Sevillako bigarren xake talde oneneko jokalaririk hoberena zen. Beraien taldeko partaide naiz orain. Niretzat xakea inbertsio bat da. Zahartzean, eskuen dardara dela eta tronpa jotzeko gai ez naizenean, beste afizo hau behintzat mantendu ahal izango dut.

JASONE OSORO

BATA ala **BESTEIA**

Mari Jose Garmendia
Sikologa



- **Sikologoak ala apaizak?** ▶ Sikologoak, dudarik gabe.
- **“Mafalda” ala “El capitán trueno”?** ▶ Mafalda.
- **Lan batera aurkezteko, test siko-teknikoa ala elkarrizketa pertsonala?** ▶ Biak dira beharrezkoak. Lehenengo testa eta gero elkarrizketa.
- **Wody Allen ala Lina Morgan?** ▶ Wody Allen.
- **Institutoa ala sikologo gabinetea?** Gabineteko lana gustura egiten dut, bertara doan jendea, interesarekin joaten delako.
- **Hiri handiak ala herri txikiak?** ▶ Nahiago ditut herri txikiak
- **Pilota partidu bat ala tenisa?** ▶ Ez naiz zalea, baina finalak direnean pilota atsegin dut.
- **Freud ala Humberto Eco?** ▶ Freud asko gustatzen zait. Nahiz eta gizonen ikuspuntutik izan, teoria horiek oso baliagarriak dira gizakiak maila pertsonalean ezagutzeko.
- **Etxe bat gauzez betea ala hutsik eta beharrezkoarekin?** ▶ Hutsik. Espazio garbiak nahiago ditut.
- **Zein pelikula ikusi dozu behin baino gehoagotan?** ▶ “Sexo, mentiras y cintas de video” ikusi nuen lehengoan, bigarren aldiz, oso gustura.
- **Liburu bat oheratzerakoan?** ▶ Jose Luis Sanpedroren “La sonrisa etrusca” nago irakurtzen eta oso ondo dago.
- **Erotismoa ilunpean ala argiak piztuta?** ▶ Bietara.
- **Gazteak pasiboak dira ala ez?** ▶ Ez. Gizarteko gaietaz kezkatzen dira.
- **Sikologoak ala sikiatrak?** ▶ Sikologoak. Hala ere, sikiatrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte sikologoaren teknikak, botikak utzita.
- **Norberaren usaina ala perfumea?** ▶ Biak. Perfume suabeak gustatzen zaizkit baina norberaren perfumea oso inportantea da.
- **18 urte bazenitu ze ikasketa egingo zenituzke?** ▶ Kazetaritza.
- **Egia esan diguzu ala ez?** ▶ Bai, noski.
- **Paperak aldatu ditzagun, zer galdetuko zenidake sikologo bezala?** ▶ Ea arazo larri baten aurrean zein den zure erantzuna, bai fisikoki, bai mentalki.

MYRIAM ALDAZABAL

Aita Agirre

1863-1941



UJANGUREN

- Francisco Agirre Elgoibarren jaio zen 1863ko otsailaren 23an.
- Eliz ikasketak emaitza bikainekin burutu ondoren, 1887an beretergoa jaso zuen.
- 1887ko abenduaren 21ean Fulkier-era iritsi zen, Txinako probintzia batera.
- Lan asko eta gogor egin zuen kristautasuna Txinan hedatzearen. Bere aurka zeudenak ere asko ziren, 1900. urtean 300 pesoko dirusaria jarri zutelarik bere bizitzaren truke.
- 1911n Bikari Apostoliko eta Gotzain izendatu zuten.
- Hainbat eraikuntza altxatu ziren Txinan bere garaian: 30 eliza, 94 kapera, katedrale bat, 159 eskola, ospitale bat, bi inprenta...
- Horrenbeste txinatar bihurtu ziren kristautasunera ezen Aita Agirrek bere Bikanatoa zatitzeko eskatu behar izan ziola Erromari, zatitutako guneetara misiolari gehiago bidaliz.
- 1941eko ekainaren 12an hil zen, 78 urte zituela.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

MOTZAK

Foru aldundiak Alberto Revuelta saritu du

Foru Aldundiak urtero antolatzen duen "Gazteen kirol gala" deritzonaren barruan, Alberto Revueltak aipamen berezia jaso du. Donostiako Victoria Eugenia antzokian pasa den asteazkenean, hilak 2, izandako ekitaldian korrikalari elgoibartarrak "promesa" mailako korrikalariei dagokien aipamena jaso zuen. Guztira 24 kiroletako atletak saritu dituzte eta Revueltak 93. urtean zehar izandako emaitzengatik errekonozimendua lortu du.

Brontzezko domina Taekwondon

Ibai gimnasioko ikasle den Rafael Sotok brontzezko domina lortu zuen joan den urtarrilaren 29an Bilbon izan zen Bizkaiko promesa txapelketan. Pisu ertaineko kategorian parte hartu zuen lehen aldia izan arren, emaitza, ezin hobea izan zen 18 urte eta gerriko urdina duen Rafaelentzat. Bestalde, hilaren 5eko eta hilaren 12ko astebukaeretan, Errenderiko kiroldegian jokatu den Gipuzkoako txapelketan izango dira Ibai gimnasioko bi judo talde. Hilaren 6an, igandea, 17 urtetik beherako gizonezkoen mailan parte hartuko dute eta hilaren 13an, 19 eta 15 urtetik beherako gizonezkoen mailan. Txapelketa honetan Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortzea espero dute Ibaiko judokek.



Ekaitz Isasi:

"Orain nere aldetik konpetitzen dut"

■ Orain arte, ekipo batean aritu zara eskiatzen. Zein ekipotat?

- Neguko kirolen Euskadiko Federazioan. Gutxi gora behera hiru urte egon naiz, 13 urte nituenetik 16 urterarte. Lehenengo "agilutxo" lehen urtean egon nintzan, gero bigarren urteko "agilutxoetan" eta azkenian jubenetan.

■ Zein txapelketatan aritu izan zara? - Euskadiko eta Espainiako txapelketetan. Lehen urtean Euskadiko bigarren atera naban, bigarren urtean Euskadiko hirugarren eta jubenetan ere hirugarrena. Beste konpetizio batzuetan ere medailak lortu ditut. Espainiako txapelketan ere hiru urtetan hartu det parte baina hor ezer lortzia oso zaila da.

■ Zergatik? - Euskadiko ekipoan egonda, kanpora joan behar da entrenatzera, Candanchura, eta ni hemen bizi naiz. Han bizi direnak eta Madril bizi direnak ere, goizean klasera juten dira eta arratsaldian entrenatzen. Guk, ezin dogu hori egin. Gainera, jubenetan hasi nintzenez seniorekin korritu behar izan naban.

■ Zergatik erabaki zenuen ekipoa lagatzea? - Euskadiko ekipoan arazo batzuk sortu ziran. Gero Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ekipoak sortu ziran. Gai-



nera entrenadorea, han ibiltzen ginak eta gurasoak dena eramatera konprometitu ginan baina ez zaban ondo funtzionatu. Gainera, oso gogorra da. Neguan gustura, eskiatzen zaudelako, baina udan kontzentrazioak egiten dira eta nahiko aspergarria da.

■ Dena den, eskiatzen jarraitzen duzu, ez? - Nire kontu eskiatzen dut, lagunekin, eta korrikalari karneta daukadanez, kanpeonatuetan parte har dezaket. Oraingo Euskadiko txapelketan ere parte hartu dot.

■ Lesio garrantzitsurik eduki al duzu? - Bai, behin sorbaldako hezur bat, humeroa, apurtu naban eta buruan ere euki ditut puntuak.

■ Balantzea, positiboa? - Merezki izan du lagunak egiten direlako, baina sakrifiziua haundia izan da.

Lagunak egiten dira eta teknika ere hobetzen da.

■ Zer esango zenioke eskiatzen hasi denari? - Animatzeko. Haserakoa onena da, dibertitu egiten zara. Gero hobetzeaz baka- rrik arduratzen zera.

• Adina: 17

- Kolore deigarriak ala apalak? Deigarriak.
- Bihar Elgoibar zurituta ikustea gustatuko al litzaizuke? Ask.
- Beste kirolirik? Mendia.



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak

San Bartolome 18
74 08 49



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Atletismo eskolako korrikalariak bikain ari dira

Atletismo eskolako kideek emaitza ezin hobeak izan dituzte azken aldian korritu dituzten lasterketetan.

Daniel Rinok entrenatzen dituen korrikalarien artetik Mireia Huidobrok, Oihana Chicok, Ebelin Santosek, Egoitz Martinezek eta Gorka Sanchezek izan dituzte emaitzarik onenak.

Irunen burutu zen kros herrikoi batean Mireia Huidobro 6. sartu zen helmugan, baina Gipuzkoako lehen sailkatua izan zen. Lasterketa honetan 200 korrikalarik parte hartu zuten eta tartean, kanpoko jende ugari. Mireiak beste zenbait lasterketatan parte hartu du eta emaitza onak izan ditu: Deba eta Antzuolan izandako kros lasterketetan lehen postua lortu zuen. Alebinetan Oihana Chico eta Ebelin Santos lehen hamar korrikalarien artean sailkatu dira eta mutiletan, alebinen kategorian hau ere, Egoitz Martinez nabarmendu da. Honek 5. eta 6. postuak lortu ditu azken lasterketetan. Infantiletan Gorka Sanchez dabil gogorren. Daniel Rino entrenatzaileak esan digunez, taldean badira beste



■ ■ Mintxetako zelaian atletismo eskolako neska mutilak eta entrenatzailea.

hiru mutiko aukera handiak dituztenak baina futboleak jokatzen dutenez, oso zaila da atletismoan buru belarri aritzea. Danik dioen bezala, futbolak indar handia dauka eta normalean beste kirol batzuen kalterako izaten da, atletismoa kasu.

Gaur egun 26 neska mutil dira atletismo eskola osatzen dutenak. Hauetatik 3 nesken benjamin mailakoak dira, 6 nesken alebin mailakoak, beste 6 mutilen alebin mailakoak, 2 nesken infantil mailakoak eta 6 mutilen infantil mailakoak. Astean hiru aldiz entrenatzen dute, astele-

hen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean. Eguraldi ona dagoenean Mintxetako atletismo pistan entrenatzen dute eta euria dagoenean Kiroldegian aritzen dira.

Hurrengo topagunea otsailaren 20an, Irunen izango den Gipuzkoako txapelketa izango da. Taldeka zein Gipuzkoako taldearen barruan sailkatuz gero, martxoaren 20an Euskadiko txapelketan izango lirateke. Elgoibarko korrikalariak Euskadiko txapelketarako txartela lortzeko aukera handiak dituzte.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 5

10,00: Elgoibar - Ordizia (Kadeteak)

12,00: Elgoibar - Aurrera (Jubenilak)

13,45: Urki - Gazteak (2. erreg.)

16,30: Haundi - Erandio

Igandea 6

10,00: Eibar - Orioko (Jubenilak)

12,00: Urki - Zestua (Jubenilak)

16,00: Elgoibar - Mondragon (2. erreg.)

ESKUBALOIA kiroldegian

Larunbata 5

16,00: Elgoibar - Urnieta (Jubenilak)

17,30: Elgoibar - Leizaran (Kadeteak)

FUTBITOA Urasandin

Igandea 6

10,00: G. Garcia - Lucky Luke

10,00: Aldabas - Ametsa

11,00: Bar Roke - Sporting

11,00: D. Kalimotxo - King - Kong

12,00: Lagun Toki - Txirristaka

12,00: Univ. de Chile - Hunde Verboten

XAKEA Pista beltzeko lokalean

Larunbata 5

16,00: Elgoibar A - San Andres A

16,00: Elgoibar B - Chaturanga

16,00: Elgoibar - Bergara

EMAITZAK

ESKUBALOIA

Elgoibar 9 - Baztango 12 (Neskak)

Elgoibar 26 - Ormaiztegi 17 (Jubenilak)

Elgoibar 18 - Mundaiz 18 (Kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Elgoibar A.F. 2 - Indarra 2 (1. maila)

Elgoibar A.F. 3 - C. Extremeño 3 (2. maila)

FUTBOLA

Elgoibar 0 - Hernani 1 (Infantilak)

Getxo 2 - Haundi 1

Aloñamendi 2 - Elgoibar 3 (2. erreg.)

Eibar 4 - Elgoibar 4 (Kadeteak)

XAKEA 3. erronda

Bergara 2 - Elgoibar B 2

Casino Bergares 3 - Elgoibar 1

GARE-EILT: Irratizaletuen lagun taldea

Duela urtebete eta piku eman zituen lehen urratsak Elgoibarko irratizaletuen lagun taldeak. 13 bat pertsona afari baten bueltan elkartu eta lagun talde bat sortzea pentsatu zuten irratizaleasuna aitzaki. GARE izena jarri zioten, Elgoibarko irratizaletuen lagun taldearen gaztelaniazko izena.

Hurrengo bileran euskal izena jarri zioten taldeari: EILT edo Elgoibarko Irratizaletuen Lagun Taldea. Taldea osatu ondoren, berau osatzen zutenek "numerala" deitzen dena jaso zuten. Taldekide bakoitzak numeral bat du: GARE 1, GARE 2, GARE 3,... Kide bakoitzak propor-tzio geometrikoan numeral bat har-tzen du eta horretaz gain indikatibo edo gaitzizen bat ere badu.

Ondoren GARE-EILT-k postakutxatila zenbakia lortu zuen. Oso garrantzitsua omen da mota honetako talde batean postakutxatila edukitzea. Kontaktuen atalerako beharrezkoa da postakutxatila, bertara bidali behar baititu kontaktu egin berriak berari buruzko hainbat datu. QSL izeneko txartel batean jartzen dira datuok eta ondoren postakutxatilara bialdu. Jasotako kontaktuen datuekin arxiboa egiten da.

Irratizaletuen ezaugarri nagusienetarikoa, darabilten kode berezia da. Hitz arraro eta egindako esamolde ugari dituzte; herrialde



■ ■ Etxetiko irratia aparailutik beste zaletu batzurekin hitz egiten dute.

ezberdinetako irratizaletuen artean amankomuna den hizkera.

Haseran dozena bat inguru baziren ere, gaurregun 30 kide dira. Gehienak nahiko gazteak, eta elkarre bezala legalizatzen dabilta. Hilero, bilera egiten dute Kultur Etxean eta aurtun, lehengo aldiz zenbait ekintza burutzeko asmoarekin dabiltzala esan digute. Orain arte ez dute ekintza askorik egiteko aukerarik izan, elkarre ez direnez laguntzarik jasotzen ez baitute eta finantzaketa bide bakarra kuotak dira. Dirua ateratzeko, 24 ordu irauten duen lehiaketa egiten dute, larunbat eguerdiko 12etatik igande eguerdiko 12ak arte. Lehiaketa ahalik eta transmisio gehien hartzean datza. 27 megahertziotako frekuentzian emititzen dute eta kanal ezberdinak dituzte. Kanale bat, beti irekita dago eta informazioa lortzeko erabiltzen dute.

Herriko irratizaletuek gauero

erronda moduko bat egiten dute beraien artean hitz egiteko. Erron-daz gain, kontaktuak egiteko, hondamendiak gertatzen direnean laguntza emateko eta informazioa lortzeko erabiltzen dute irratia

Tresneriari dagokionez, hiru motatako irratia erabil daitezke: bata "basea" deitzen dutena edo mugiezina, beste bat mugikorra dena eta bestea "talkia" deritzona.

Anekdotak gisa aipatu, irratizaleak ez dutela telefonoan apenas gasturik izaten, komunikatzeko irratia erabiltzen baitute.

FITXA TEKNIKOA

GARE-EILT: Irratizaletu taldea

Sorrera urtea: 1992

Kide kopurua: 30

Arduraduna: David Mekolalde

Iharduera: Irratizaleasuna

Lokala: Ez daukate



ANCHUSTEGUI S_a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiazen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

Txotxongilo erakusketa Kultur Etxean

Datorren astelehenetik aurrera Corrado Masacci italiarraren txotxongilo bildumari buruzko erakusketa irekiko da. Ikusleak eskuz zein hariz egindako txotxongiloen mundu magikora iristeko aukera izango du.

Erakusketan txotxongiloen jatorria eta historia azalduko da eta herrialde ezberdinetako txotxongiloak egongo dira ikusgai. Hala nola, Indiako txotxongiloak (Rajastan), Nepalekoak, Wayang Golek-ekoak (Java) eta Java eta Baliko maskarak. Italiako txotxongilo tradizionalak eta antzerki italiarreko eta Emilia Romagna antzerkiko pertsonaiak ikusi ahal izango dira. Era berean, Corradoren bildumak Artearen komediako txotxongiloak eta maskarak dauzka.


Gaur eguneko atalean, fantasiako txotxongiloak, txotxongiloen antzezpena eta maskara eta txotxongiloak egiteko erabiltzen diren teknika eta materialeak ikusi ahal izango ditugu.

Corrado Masacci-ren erakusketa hau hamairu urteko emaitza da eta txotxongiloen ohiturari omenaldi bat da.

Erakusketa orduetatik aparte, Corrado Masaccik txotxongiloei buruzko azalpenak emango dizkie OHOk ikastetxeetako haurrei. Azalpenak guztiz didaktikokak izango dira eta datorren aste osoan zehar burutuko dira.



■ ■ Corrado Masacciren bildumako txotxongilo bat.



San Blas eguneko ospakizuna anis opilen usain artean

San Blas opilak edo anis opilak jateko garaian gaude. Otsailaren 3an, osteguna, Elgoibarren eta inguruko herrietan guztiz errotuta dagoen ohitura ospatu genuen arren, San Blas opilak aspalditik daude detetan salgai eta datozen egunotan jateko aukera izango dugu. Diotenez, San Blas santua eztarriko eta arnasketa aparailuko gaitzen erremediatzaile da eta bedeinkatutako kordela lepoan zehar jarrita, urte osoan ez da katarrorik

hartzen. Bakoitzak egiteko modu berezia dauka baina, arraultzak, hirina, azukrea, gurina eta anisa dira oinarrizko osagaiak. Hori bai, gainera zuriak ondo gogortu behar du eta dizdira eduki. Itxura lauki edo biribileko anis opilak herriko etxe askotan egiten dira oraindik ere, eta partidean bilduta, goizeko mezatan, opilak, kandelak, gatza, katarroen aurkako kordelak eta fruta bedeinkatzen dira.

4 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Los visitantes"
Zuzendaria: J.M. Poiré
Aktoreak: C. Clavier, J. Reno eta V. Lemerrier.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

5 LARUNBATA

09,00 SANTA AGEDA KO ESKEA

✓ Plaza handian hasiko da

16,00 GARE IRRATIZALETUEN BILERA

✓ Kultur Etxean

6 IGANDEA

12,30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

✓ Ikastolan

19,30 - 22,15 ZINEA

"Los visitantes" (J.M. Poiré)
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

7 ASTELEHENA

19,30 TXOTXONGILO ERAKUSKETA

Corrado Masacci-ren bilduma
✓ Kultur Etxean
(Otsailaren 20a arte)

22,15 ZINEA

"Los visitantes" (J.M. Poiré)
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

8 ASTEARTEA

15,00 ZAZPIKI IRRATIAREN IRRATSAIO BEREZIA

Silvio Rodrighez abeslari kubarrari buruzko monografikoa arratsaldeko 8ak arte.

9 ASTEAZKENA

19,30 HITZALDIA

Gaia: Ihauteriak Euskal Herrian
Hizlaria: Antxon Agirre Sorondo.
Antropologoa
✓ Kultur Etxean

10 OSTEGUNA

19,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Ihauteriak
Emalea: Koldo Lizarralde. Etnologoa
✓ Kultur Etxean

11 OSTIRALA

19,30 HITZALDIA

Gaia: Medizina naturala
Hizlaria: Marisol Saez. Naturopata eta biologoa.
✓ Kultur Etxean

ZINEA

"Los visitantes"

1222. urtean Luis VI.aren erregetza garaian, Godefroy zalduna etxera itzultzen da inglesen aurkako guda batetik garaile delarik. Gizona, ametsetako emakumearekin ezkontzeko asmoarekin etorriko da, baina hara non, bere emaztegaia sorginkeria maltzur batek hil duela jakiten duen. Atsekabeturik, denboran atzera eramango dion edari bat hartzen du bere maitearen heriotza ebitatzeko. Zerbaitek huts egiten du eta 1992.an agertzen da.

ZINEA

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzat OHARRA

- BARREN ONDARRURA, GRANADARA, INDIARA... ERE BIDALTZEN DUGU.
- Kanpora bidaltzea 1.000 pta kobratzen dugu posta gastuak ordaintzeko.
- laz kontu zenbakia eman ez zenutenok bidali lehen bait lehen BARREnera edo deitu 74 16 26 - 74 41 12 telefono zenbakietara.
- Hemendik aurrera BARREN etxean jaso nahi baduzu bete alboko fitxa.

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen abizenak.....
Telefonoa.....
Helbidea.....
Herria eta Posta Kodea.....
Bankua edo Aurrezki Kutxa.....
Sukurtsala.....
Kontu zenbakia.....

Etxebizitzak

Logela bat daukat alokatzeko. Erropak ere garbitzen ditut.
Tel.: 74 24 06

Etxe bat salgai daukat Santa Klara 24an. **Tel: 74 40 52.** Ofizina orduetan deitu.

Baserri bat hartuko genuke
Tel.: 76 62 64. Imanol

Etxebarrin etxebizitza berri bat dago salgai. 87 m² Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea.
Tel.: (943) 70 12 71

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zenbakian.
Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)

Etxe bat saltzen dut Urasandín. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Etxe bat daukat alokatzeko. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno kalean (Olatz altzari denda ondoan). **Tel.: 74 08 09 3,30etatik - 7,30etara.**

Lana

Matematika, fisika eta kimika klaseak ematen dira BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Javier Telf: 74 13 11

Salerosketak

Bi bizikleta emango nituzke. Zaharrak dira baina itxura onian daude. Norbaitek aprobetxatu nahi baditu deitu.
74 28 24

Garaje bat daukat alokatzeko telefonika parean.**Tel.: 74 29 31 Rosi**

San Antolin auzoan lokal bat alokatzeko daukat. Taberna ondoan. **Tel: 74 17 95**

Ekonomika bat saltzen dugu. Berria. Deitu lanordutan.
Tel.: 74 16 38 Ainhoa

Gasezko estufak erosiko nituzke. **Telf: 74 08 95 Maite**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da.**Tel.: 74 01 17**

Frigorifiko bat erosiko nuke. Ate indibidualdun kongeladore txiki batekin. **Tel: 74 13 38** Eguerdian deitu

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia.
Tel.: 74 41 32 Fernando

San Roke auzoan garaje bat daukat alokatzeko.
Telf: 74 33 78

Bestelakoak


Asterix eta Obelixen komiki baten bi argazki ekarri dizkigute BARREnera. Jabea pasa dadila jasotzera.

Urtarrilaren 21ean, ostirala, lepoko painelu bat galdu nuen Andonegitarren etxe parean. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu.
Tel: 74 17 80 Mari Tere

66an jaio eta Pilar ikastetxean ikasi zutenak afari bat egingo dugu. Afaria Txarridunan izango da martxoaren 5ean eta izena emateko azken eguna otsailaren 25a izango da.
Tel.: 74 04 90 - 74 07 95 74 39 67

Urrezko katea eta medaila aurkitu ditut Mintxetan.
Deitu 74 19 21 zenbakira

Karitasek familia bati emateko erropak gordetzeko armairu bat behar du. **74 15 09 / 74 12 57**



ESKEINTZA BEREZIAK

Erakusketa aldaketa dela eta era guztietako sofa eta tresiloetan BEHERAPENAK

Siloi zaharra ekartzen baduzu 5.000 pta jasoko dituzu !!

EL ALMACEN DE ELGOIBAR

Altzariak



Erosi ala ez zatoz gu bisitatzera!

Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR

ERAKUTSI

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailera bere prestakuntzetan.
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.
Erakutsi.



TEKNOLOGIA ALEMANA



SEAT
Bai!

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR